

## Harpeko Saindua

Kattalin Sallaberry-k kontatua

Artzamendi mendia ezagutzen dukezue, bederen bistaz. Itsasu eta Errobiko ibarraren gaineko aldean ikus daiteke. Kondatuko dizuedan istorioa mendia horren gibelean gertatua da, harkaitz handiek sai arreen kolonia bat aterbetzen duten tokian.

Mendian goiti sigi-saga doan bidexka harkaitz horien gainetik pasatzen da gero Bidarraia aldera jausteko. Baleako lehen etxera iritsi baino lehen, labarrean, ikusezina den leize tipi bat dago. Leize horretaz hitz egin nahi dizuet.

Aspaldiko istorio bat da... Negu hondarreko ilunabar batez, neska gazte bat bere etxetik ateratzen da ahuntz troparen bila. Abereak egun osoan kanpoan egonak baitira biziki gora iganak dira harkaitz aldapatsuetara.

Tenore horretan zerua ubelez koloreztatzen da sasoi hortan lilion sortzen diren kolore berberaz. Neskatxak urratsa luzatzen du lehen izarra jadanik piztua baita.

Aldi berean gizonak menditik jausten dira, beste bide batetik. Egun guzia lanean aritu dira: uda honetan goiti eremanen dituzten kabalentzat harrizko hesi bat eraiki dute.

Nekatuak, familiako beste kideekin sukaldean biltzen dira. Eltzetik salda usain gozo bat barne guzian hedatzen da.

- Bainan, nun da gure alaba? galdetzen du aitak.

Denbora badoa bainan neska ez da itzultzen. Orduko gau iluna da.

- Afal gaitezen, dio amak; laster etorriko da.

Bainan neska ez da ageri. Afaria isiltasunean bururatzen dute.

-Ez da dudarik: zerbait gertatu zaio!

Aita eta mutikoak zutitzen dira. Gau beltzean ateratzen dira eta neskatxaren bila abiatzen dira.

Gau osoa zoko moko guzien miatzen pasatzen dute: bidexka guziak kurrituz, sasi guziak miatuz, harkaitz guziak xeheki begiratu.

Deitzen dute, oiher egiten dute...bainan neskarik ez!

Beharbada harkaitzetan lerratu da...

Ondoko egunean bilaketak segitzen dituzte, goizetik arrats. Debalde!

Batzuei iduritzen zaie ahots bat entzuten dutela, han, Iguzkimendi aldetik heldu: « Goaita...goaita... »

Ahots bat dea ala haizea, sasi idor eta ziztadunen artetik lerratzen dena?

Egunak joaten dira eta bilaketak aintzina doaz.

Beste gau batez, ahotsa berriz entzuten dute: « Goaita...goaita... »

Tanpeaz zerbaiz harrigarri gertatzen da: argi izpi batek izar iheskor erraldoi baten gisara gau beltza urratzen du. Su-bola ziztuan jausten da, balea guzia gainez gain zeharkatuz, errekan zilarrezko herexa bat utziz. Izarra etxearen gainetik pasatzen da zuzenean harkaitzetarantz joateko.

Egunguentian, gizonak berriz ere mendiko bidea hartzen dute. Eguzkiaren lehen izpiek huntzostoak estaltzen duen leize baten sarrera argitzen dute. Ur xirripa mehe bat lurrean dabi eta harri koskorretan galtzen da.

Tutik erran gabe, leizean sartzen dira.

Zolan neskatxa bat atzemaiten dute, tente, harrizko neskatxa bat.

-Nire alaba! Nire alaba, harri bilakatua!, oihukatzen du aitak.

Argi hits batek izerditan iduri duen itxura bat erakusten du. Dirdiran da.

- Bilaketak hortan utz ditzakegu, dio aitak. Nire alaba hemen da, betiko.

Geroztik jende anitz pasatzen da leize hortatik. Gauza arraroak kondatzen dira.

Batzuek diote labarrean den zilo hori, Euskal Herriko beste leize asko bezala, Mariren etxeo sarrera dela, Mari Lurra eta ekaitzak gobernatzen dituen Dama handia.

Beste batzuek diote, berriz, neskatxa eta Mari pertsona bakarra direla.

Bada ere erraiten duenik leize honetatik isurtzen den urak gaitzak senda ditzakeela.

Istorio bat ote da? Kondaira bat?

Nik nahiago dut isilik egon.

Gaur egun Harpeko Saindua deitzen dute.